

B

BARREN



**“Behobian 1:20ren
azpitik egitea
nahi nuke”**

Carmen Perea, korrikalaria



Pedro Muguruza etorbidea, 9 behea - Tel.: 943 031 632

ORDUTEGIA:

Astelehena-osteguna: 9'00-24'00

Ostirala: 9'00-03'00

Larunbata: 10:00-04'00

Igandea: 10:00-24:00

SUKALDEKO ORDUTEGIA:

Astelehena/asteartea: 9'30-11'30

Asteazkena-Ostirala: 9'30-13'30 / 19'30-22'00

Larunbata: 10:00-15'00

Igandea: 10:00-15:00 / 19'30-22'30

PINTXO BEREZIAK:

- * Bokatak
- * Plater konbinatuak
- * Razioak
- * Enkarguz afariak



ZATOZ, SEKULAKO GIROA!

Azaroaren 12tik aurrera, ostegunero **MONOLOGO GAUA**

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Hirigintza eta generoa

Elgoibarko Udalak 2008an martxan jarritako I. Berdintasun Planaren baitan, datozen lau hilabeteetan hirigintzako diagnostikoa garatuko da Elgoibarren, genero ikuspuntutik. Baina zein zerikusi dute hirigintzak eta generoak?

Esaterako, sexuan oinarritutako lan banaketaren ondorioz, emakumezkoek eta gizonezkoek behar desberdinak dituzte herriko espazioan, eta horren ondorioz, aukera desberdinak dituzte herriko baliabideetara iristeko. Emakumezkoak lan erreproduktiboaz arduratu izan dira eta gizonezkoak lan produktiboaz. Azken hamarkadetan fenomeno hori aldatu bada ere, emakumezkoek lan bikoitza egiten jarraitzen dute, etxekoa eta etxetik kanpo egiten dutena; gizonezkoak, oraindik orain, ez dira inplikatu behar bezala etxeko lanetan edo zainketa lanetan.

Herriek duten denbora-espazio egiturek guztiz baldintzatzen dute egunerokotasuneko jarduerak erosotasunez gauzatzeko aukera (erosketak egin, haurrak ikastetxera eraman...). Ekintza horiek guztiek emakumezkoen ardurapean jarraitzen dutenez, euren bizi kalitatean eta bizi baldintzetan eragin handia dute. Hori guztiagatik, beharrezkoa da Elgoibarko emakumeen ikuspuntua jasotzea herriak dituen *argi eta itzalak* ezagutzeko, hau da, herriak dituen aukera eta oztopoak.

Horrela, mugikortasuna, irisgarritasuna, segurtasuna, zerbitzu eta ekipamenduen inguruko irakurketa egiteko aukera izango dute. Horrela, herritar ororen eskubide eta beharrak bermatze aldera, aurrerapauso bat emango litzateke. Hortaz, hilabete honetan antolatu diren tailerretan parte hartzera gonbidatu nahi izan ditugu Elgoibarko emakumeak, beraien iritzia ezinbestekoa delako.

Nerea Altxu
(Udaleko
Berdintasun
teknikaria)



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Tailerretan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu
Elgoibarko emakumeak, beraien iritzia ezinbestekoa delako"**

ELGOIBAR AIRETIK
Erretratuak mediatekan!
Ikusi eta eskatu zeurea



www.elgoiBARREN.net


**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



ALAIN ULAZIA

‘OPPENHEIMER ETA MANHATTAN PROIEKTUA’ LIBURUAREN EGILEA

“Zientziaren filosofia kaka eta diamantea bezalakoa da: ezertarako balio ez arren, oso baliotsua da”



Alain Ulaziak bigarren liburua kaleratu berri du, Gaiak Argitaraldiarekin: *Oppenheimer eta Manhattan proiektua*. Ameriketako Estatu Batuek bonba atomikoa garatzeko sortutako proiektuaren inguruko xehetasunak eman ditu mendarok fisikariak. Oppenheimer izan zen Manhattan proiektuaren buru zientifikoa. “Haren biografia hartu dut ardatz gisa progresu zientifikoaren alderdirik ilunenak azalarazteko eta horren kritika egiteko”, adierazi du. “Ahalik jende gutxienek irakurri eta, gutxi horiengan, ahalik eta zirrara gehien eragitea da nire helburua”. Alfontso Martinez Lizarduikoa ingeniari eta filosofoaren ekarpena jaso du liburuan.

Zer dela eta idatzi duzu bonba atomikoaren kontuen gainean?

Uste dudalako gizateriaren aro berri bat hasi zela Hiroshiman. Handik aurrera, frogatuta geratzen da zientzialari teoriko txepel bat izan daitekeela indar militar handienaren sorburua.

Fisikaria zaren aldetik, norentzako idatzi duzu liburua, adituentzat ala edozeinentzat?

Edozeinentzat. Hori bai, badakit hiru katuk irakurtzen duela libururik gaur egun, eta ia inork ez zientziaren dibulgaziorik, are gutxiago euskaraz. Gutxi horiek merezi dutelako idatzi dut hau, eta iraultza posible bakarra pedagogikoa delako. Ez da kasualitatea: Francok ahalik azkarren fusilatu zituen pedagogia libertarioa maisuki garatu zuten irakasle anarkista guztiak. Gainera, zientziaren filosofia kaka eta diamantea bezalakoa da: ezertarako balio ez aren, oso balioetsua da, berez.

“Hiroshimaz gerotik, zientzialari txepel bat izan daiteke indar militar handienaren sorburua”

Bonba atomikoaz eta bera sortzeko proiektuaz hamaika liburu idatzi izan dituzte hainbat hizkuntzatan. Zeure idazlanak zer berezitasun dakar?

Literaturatik eta antzinako filosofiatik hartutako aipuak sartzen saiatu naiz. Oppenheimer pertsonaiaren ardatzetik esplikatu nahi izan dut dena, bere gizatasunetik, bere komunismotik, bere alkoholismotik... Neurri horretan ariketa sasi-zientifiko bat egin dut. Egungo filosofo euskaldun onenen esanak eta idatziak ere biltzen dira: Azurmendi, Lizarduikoaren ekarpen ezinbestekoa eta Larrazabalen itzulpen bat.

Manhattan proiektuaren bidez, Ameriketako Estatu Batuek bonba atomikoa egiteko eta garatzeko aurrea hartu zioten Hitlerren Alemaniari. Hori guztia erabakigarria izan zen amerikarrentzat gerra irabazteko?

Ez. Naziak euren ameskerietan zebiltzan, josteko teknika arioak ezagutzen zituzten amonei

nei elkarrizketak egiten, esaterako. Edo giza-erresistentzia neurtzeko esperimentu makroak egiten. Bohri esker amerikarrak askoz aurrerago zebiltzan gai atomikoan. Naziak eta japoniarrak ordurako akabatuak egon arren, Hiroshima eta Nagasaki txikitzea erabaki zuten hurrengo etsaiari, Stalini, indar izugarri hori erakustearren.

Zein eratako erantzukizuna izan zuen orduan zientzialarien komunitateak? Zure ustez, Einsteinek eta euren buruak bakezaleztat zituzten beste batzuek arduraz jokatu zuten?

Bohr eta Einstein atomoaren ahalmen izugarriaz ohartu zirenean, euren erabakimena bi bidera bakarrik mugatzen zen: batetik, Majoramak egin zuen gisan, mendira ihes egin, fisika egiteari laga, eta krimen horretan ez parte hartu; edo bigarrenik, une horretan botere horri buruzko informazioa zeini eskaintzea erabaki. Majoramarena erromantikoa eta indibidualista da oso, lehenago edo geroago, han edo hemen, lehergailu atomikoa garatuko baitzen. Hau da, naziak *zientifikoagoak* izan balira, ni, orain eta hemen, alemanez ariko nintzateke, Europa osoa erraz konkistatuko baitzuten botere horrekin.

Oppenheimer izan zen Manhattan proiektuaren zuzendari zientifikoa. Benetan pertsonaia biblia izan zen: bere buruarekin ziurtasunik gabekoa, arazo psikologikoak izan zituena, komunismoarekin bat egin zuena... Damutu zitzaion noizbait bonba atomikoaren aita izatea, ala harro sentitzen zen berak garatutako proiektuarekin?

Bien arteko eskizofrenian bizi izan izan zen hil arte. Pertsonalki damutu zitzaion, baina sozialki, zientzialarien artean, lidertzat zuten. Einsteinek-eta beti babestu zuten, baita trizio komunistagatik epaitu zutenean ere, antistalinista izan arren.

Zure iritziz, zientziak berrikusi beharko luke gizartean duen papera? Zein modutan?

Donostian bertan ikusten da: izugarriko dirutza dago nanoteknologiarako. Ikaragarria. Bitartean, filosofiako fakultatea hutsik: ikasle bat bost irakasleko. Zientziarako inbertitzen den dirua zientziaren kritikarako inbertitzen denaren erdia izan beharko litzakeke, arriskuak eta eragin sozialak ikertu behar baitira lehenbizi. Baina hori herri libreen mundu ez-kapitalista batean soilik da posible.

Zein izan da lan hau prestatzean bameratu duzun leziorik inportanteena?

Petrovich saskibaloi jokalaria hogei triple se-

gidan sartu aurretik, ez zuen entrenamendua uzten. Hemeretzigarrenean huts eginez gero, berriro hasi behar zuen lehenbizikotik. Hori egunero. Lan egin behar da, eta norberaren lana maite behar da, beraz. Nire kasuan zer-bait idaztea, nahiz eta *pipetarako* ere ez eman.

“Zientziarako inbertitzen den dirua zientziaren kritikarako inbertitzen denaren erdia izan beharko litzateke”


Aurretik, taldean egindako liburua eman zenuen argitara, *Arno, piztiak eta bandiduak* izenburupean, eta nahikoa oihartzun lortu zenuen. Argitara eman berri duzun lanarekin antzekorik espero duzu?

Lortu al genuen oihartzuna? Estazioko lagun baten irakurketa eta kritika segurutzat daukat. Hortik aurrera, datorkidan edozer nire ametsen gainetik dago.

Beste idazlanik prestatzen ari zara?

Orain tesiarekin nago: *Nola erabiltzen dira metafora eta analogia sormen matematikoan eta fisikarienean?*

Oier Narbaiza



Trinity izan zen Estatu Batuen lehen proba nuklearra (Mexiko Berria, 1945ko uztaia). Plutonioa erabili zuten, handik egun batzuetara Nagasakin bezalaxe.

EPAIKETAREN ZAIN



'Euskaldunon Egunkaria' itxi berrian Madalan egindako elkarretaratzea.

Sei urte joan dira, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, Guardia Zibilak *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuenetik. 2003ko otsailaren 20an gertatu zen, goizaldera. *Egunkaria* itxi, eta hamar lagun eraman zituzten atxilotuta. Asaldatuta, milaka jende mobilizatu zen ondorengo egunetan, eta zalantzarik gabe, Donostiako manifestazioa izan zen haserre kolektibo horren erakuspen gorena. Orain, sei urteren ostean, akusatuen aulkian eseriaraziko dituzte auzipetutako hamar lagunetik bost: Joan Mari Torrealdei, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Iñaki Uri eta Xabier Oleaga. Euskarazko komunikabideak sortu eta sustatzen egindako lanagatik, ETAko kide izatea leporatzen diete, eta 12 eta 14 urte bitarteko kartzela zigorrek eskatu dituzte haien kontra.

Aspaldiko kontua da *Egunkariarena*. Juan Del Olmo epaileak 1993. urtean ustez ETARI atzemandako paper batzuk hartu zituen oinarritzat *Egunkariaren* kontra egiteko. *Egunkaria* itxi bitarteko hamar urte horietan (1993-2003) Espainiako Auzitegi Nazionalako hainbat epailek ezagutu zituzten Guardia Zibilak aurkeztutako dokumentu haiek, tartean Bal-

tasar Garzon epaileak berak, baina inork ez zuen salaketa egiteko oinarririk ikusi. Del Olmok, baina, Egunkariaren lokal guztiak ixteko agindu zuen 2003an, badaezpadako neurri gisa. Ordutik hona, fiskalak behin eta berriz eskatu du auzia ixteko, frogarik eta oinarrik ez dagoela arrazoituta. Uztailean, ahozko epaiketa egingo dela jakinarazteko kaleratutako autoan bertan, auzia behin betiko ixteko eskatu zuen Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak. Alferrik, ordea. Epaiketa egin egingo da, eta atzerapenik ezean, azaroan hasiko da.

Bi sumario

Egunkaria auzia berez bi sumariotan dago banatuta. Sumario nagusian orain epaituko dituzten bost lagunak daude auzipetuta, eta ETAko kide izatea leporatzen diete. Sumario ekonomikoan, berriz, bederatziz lagun daude: sumario nagusiko hiru (Joan Mari Torrealdei, Txema Auzmendi eta Iñaki Uri), eta beste bost lagun hauek: Jose Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubeltzu eta Fernando Furundarena. Erakunde armatuarekin loturan delitu ekonomikoak egitea egozten diete zortzi horiei, eta 13 urtetik 26 urtera bitarteko kartzela

zigorrek eta 21.000.000 eurotik 33.000.000 euro bitarteko isunak eskatzen dituzte haien kontra.

Epaietaren atarian, hainbat ekintza antolatzen ari dira herriz herri, auzipetuei babesa adierazteko eta epaietarako dirua biltzeko. Elgoibarren, orain sei urte jaso zen babesa indarberritu nahi da orain. Orduan jendetza handia batu zen Elgoibarko Herri Batzordeak deitutako elkarretaratze eta gainerako ekintzetan. Era berean, elgoibartarrek erruz erantzun zioten Kontseiluak eta *Egunkariako* langileek 2003ko martxoaren 13rako deitutako Elkartasun Egunari, eta, baita sindikatuek deitutako lanuzteari ere. Orain, egoera beste bat dela jakitun, helburu apalagoak jarri ditu Egunkariaren Aldeko Babes Taldeak. Hiru gauza egitea aurreikusten du: bonuak eta kamisetak saltzea, herri bakoitzean argazki handi bat ateratzea, eta manifestaziorako autobusak antolatzea. Edonola ere, herri eta auzo bakoitzaren gogo eta indarraren arabera, gauza gehiago antolatu daitezke.

Hona hemen, ondoko orrian, Elgoibarren eta Mendaron egingo diren ekintzen zerrrenda.



ELGOIBARREN EGINCO DIRENAK

BONOAK ETA KAMISETAK: 10 euroko bonuak daude salgai Elgoibarko Izarran eta *BARREN* astekariaren egoitzan. Era berean, kamisetak ere salduko dira, 10 eurotan.

ARGAZKIA: Azaroaren 28an argazki bat aterako da herrian, auzipetuei babesa agertu eta auzia bera salatzeke. 12:00etan egingo da argazki hori, Plaza Handian. Ahalik eta jende gehiena bildu nahi da argazkirako.

MANIFESTAZIOA: Eguna zehazteke badago ere, *Egunkaria*-ren aldeko manifestazio nazional bat egitea aurreikusita dago, Bilbon. Epaiketa eguna jakitean zehaztuko da eguna. Epaiketa hasi aurreko zapatuan izango da manifestazioa, eta Elgoibarko Izarrak autobusak antolatuko ditu, eskualdeko beste euskara elkarte batzuekin elkarlanean. Horretarako, baina, Elgoibarko Izarran izena eman beharko da aurrez, zenbat autobus beharko diren zehazteko.

MENDARON EGINCO DIRENAK

BONOAK: 10 euroko bonuak jarri dira salgai Leku-Ona eta Ormola tabernetan. Era berean, kamisetak ere salduko dira, 10 eurotan.

MANIFESTAZIOA: Mendarotik ere irtengo da Bilbora autobusa, manifestazioa egingo den egunean. Hala ere, aurrez izena eman beharko da Txirristaka tabernan.

ARGAZKIA: Abenduaren 5ean argazki bat egingo da herrian. Lekua eta ordua zehazteke daude oraindik.

KONTZERTUA

Azaroaren 28rako kantaldi bat antolatu dute Donostian, Kur-saalean. Anari, Anje Duhalde eta Niko Etxart, Pantxoa eta Pello, Txomin Artola eta Amaia Zubiria, Mikel Urdangarin eta Josu Zabala, Oskorri, Rafa Rueda eta Gorka Urbizu izango dira, besteak beste, kantaldian parte hartuko dutenak.

ZIGOR ESKAERAK

JOAN MARI TORREALDAI



Egunkaria SAKo administrazio kontseiluko lehendakaria. Auzi nagusian: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa. Auzi ekonomikoan: 26 urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra, eta 32.891.200 euroko isuna.

TXEMA AUZMENDI



Egunkaria SAKo administrazio kontseiluko idazkaria. Auzi nagusian: 14 urteko espetxealdia eta 15 urteko inhabilitazioa. Auzi ekonomikoan: 26 urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra, eta 32.891.150 euroko isuna.

IÑAKI URIA




Egunkaria SAKo kontseilari ordezkaria. Auzi nagusian: 14 urteko kartzela zigorra eta 15 urteko inhabilitazioa. Auzi ekonomikoan: 26 urte eta lau hilabeteko kartzelaldia, eta 32.981.150 euroko isuna.

MARTXELO OTAMENDI



Egunkariako zuzendaria. Auzi nagusian auzipetua. 14 urteko kartzela zigorra eta 15 urteko inhabilitazioa.

XABIER OLEAGA



Egunkariako erredaktoreburu izandakoa. 12 urteko kartzela zigorra eta 14 urteko inhabilitazioa, Dignidad y Justiciaren eskareran; 14 urteko espetxealdia, AVTrenean.

JOXE MARI SORS



Egunkaria SAKo administrazio kontseiluko kidea. 26 urte eta lau hilabeteko espetxealdia, eta 32.891.150 euroko isuna.

AINHOA ALBISU



Egunkaria SAKo administrazio saileko langilea. 26 urte eta lau hilabeteko kartzelaldia eta 32.891.150 euroko isuna.

MIKEL SOROZABAL



Egunkaria SAKo administrazio saileko langilea. 21 urte eta bederatzita hilabeteko kartzela zigorra eta 27.265.727 euroko isuna.

BEGOÑA ZUBELZU



Egunkaria SAKo administrazio saileko langilea. 17 urte eta bi hilabeteko kartzelaldia eta 21.640.933 euroko isuna.

FERNANDO FURUNDARENA



Egunkaria SAKo administrazio saileko langilea. 13 urte eta hiru hilabeteko kartzela zigorra, eta 21.167.546 euroko isuna.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Julio Garcia

Aita maitea:

Laga gintuzula egun batzuk pasatu diren honetan, zure emazteak eta seme-alabok hitz batzuk idazteko indarrak hartu ahal izan ditugu.

Zure bizitzan egindako ekintzak ditugu akorduan, eta, gure ustez, gauzak besteengatik egin dituzu beti, trukean ezer jasotzea espero gabe. Elgoibarko futbito txapelketa sasoa gogoratzen dugu, 1980.eko eta 1990.eko hamarkadetan. Txapelketa antolatuta ahal izateko laguntzeko eskatu zizuten, eta ez zenuen inolako zalantzarik izan. Zenbat arratsalde eman zenituen etxeko sukaldean, paperak betetzen: taldeen zerrendak, jokalarienak, golegileenak... Zenbat gazte zeuden asteburuaren esperoan, partidetan parte-hartzeko irrikatan! Futbola beti izan zeure zaletasun handia: futbola, futbitoa, areto-futbola...

Akorduan dauzkagu, baita ere, parrukoari edo meza ematen zuen apaizari laguntzeko elizara joaten zinen asteburuak. Han irakurri egiten zenuen. Zuretzako zailena eliztar guztien aurrean kantatzea zela esaten zenuenean, esaten genizun gu, behintzat, ez ginatkeela gauza izango. Zuk denari garrantzia kentzen zenion, eta norbaitek egin egin behar zuela esaten zenigun.

Eta zure hiletaren egunean, Nagusilaneko zure lagunak tanatoriora etorri zirenean, konturatu ginen besteei laguntzeko dena ematen jarraitu zenuela, gaxorik egon arren. Akorduan dauzkagu arratsalde haiek, San Lazaro egoitzan

zaharrei konpainia egiten zenienean; euren herrian zehar paseoan irteten zirenean. Zure kideen esanei esker, jakin badakigu eurek zein zaharrek zure falta sentituko dutela. Egundako triste horietan, jakin genuen zenbat lagun zenituen eta jendeak zenbat maite zintuen.

Hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiegu, zeure izenean, lagun horiei, familiari eta adiskideei, une zailetan eta latzetan erakutsi diguten maitasunagatik. Ahal bazenu, zeuk ere horixe egingo zenuke, zauden tokian zaudela. Ziur gaudete.

Gutun hau amaitu nahi dugu, baina ez dizugu agur esango, gure buruan eta bihotzean beti egongo zarela. Eskerrik asko gurekin beti hain ona izatearren. Musu bat.

Emaztea eta seme-alabak ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zaloe Armaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. IMPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Arkaitz Irureta

Azken aldian, Justo, iruditzen zaidak ahaztu egin zai-gula elkarkidetasu-naren funtsa. Hemen ba-zirudik laguntasuna bukatu dela.

Gaur hiregatik, bihar niregatik ikasi nian, eta ahal dudan guztie-tan *kaleko* lege hori betetzen saiatzen nauk.

Arlo pertsonalean ez ezik, arlo sozialean ere gauza bera pasatzen zaidak, eta hariturik entzun nian aurreko batean kirol proba batzuk egiteari uzteko arrazoia boluntario falta zela. Laguntzaileek dirua ko-bratu nahi omen ditek, eta horek boluntarioak omen dituk, hori txarre-na! Denborak dirua balio dik, eta hori duk balore bakarra, itxura denez. Ohitura hori jarri ditek!

Baina errealitate hori non gertatzen duk? Boluntario lanik gabe ulertu ote litekeek adibidez Elgoibarren jai alternatiboak antolatzea? Mendi irteerak? Errekak garbitzea? Desobedientzia ekintzak?

“Ematean zagok aberastasuna, jasotzean baino gehiago”

Ehren bizirautea bera, komunikabideen ixteak, alderdi politikoak legez kanpo uzteak edota desobedientzia ekintzei isunen gainetik aurre egiteak, adibidez, ez al ditek dena dirua ez dela demostratzen?

Motorra dirua ez denean gauzak indarrez eta gogoz ateratzen dituk; motorra dirua denean, aldiz, hasieran irtengo dituk, baina aurrera begira indar falta nabaritzen duk, hori duk nire sentsazioa.

Izan ere, dirua tartean sartzen denean, helburua ahaztuta, iturria ez mozteaz gehiago arduratzen baituk jendea.

Halere, nik nirearekin jarraituko diat. Ematean baitago aberastasu-na, jasotzean baino gehiago, niretzat.



Justo Arriola

Eta ondo egingo dok: emandakua dalako ja-soko duana. Bai, herri hau ezin dok ulertu bolun-tarixo lanik gabe, eta hik aittatzen dittuanak adibi-de txiki batzuk besterik ez dittuk. Ziurrenez arbasuen herentziarik ederrenetakua izango dok: elkartasuna, au-zolana... baitta hizkuntziarekiko maittasuna edo nortasunaren zapalketiaren kontra egittia ere. Ez dagok barru-barrutik ertetzen dan sentimendua baiño motor indartsuagorik. Akaso, hire kirolzale maka-lak dopiña erosteko diru eske jiharduan?

“Automata efikazak eta otzanak bihar gaittuek”

Ostera, bizi geran sistema honi halako baloriak traba egitten jaukek. Hamen gaur niregatik, bixar ere bai, bultzatzen dok: sartu ha-ri heurian, kontuz bestiekin... eta gu ixa konturatu egin gabe amaraunian katiatzen. Automata efikazak eta otzanak bihar gaittuek maki-ñiaren hagiñetan ondo engranatu gaittazen. Dana merkatuaren zer-bitzurako.

Baiña gizarte eragile afanosuen portaeria ikusitta, ez nok harritzen. Izan ere, gehixenak etekin bila dabixaz, statusa ixotzia giza-sal-duan. Gaiñerakuok ez daukagun informaziua euren (eta lagunen) probetxurako erabili, eskupekuak jaso, inbutuaren legia ezarri... Ho-ri bai, herrixaren alde-edo zeozer egitten badebe (danon diruakin, ja-kiña), ez haiz geratuko zeinek egin daban berririk izan gabe, egon la-sai.

Mutil koskorra nitzanian, orduko alkatiak “urte batzuk barru arrautzak txorixuakin jango dittuk”, esan zabanetik, ez juat ezagutu holako azpikorik erabili ez daban Elgoibarko udalik.



Elgoibarko Udala



ELIKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Datorren urteko aurrekontuak egitea zaila izango dela adierazi dute Udaleko arduradunek.

Nola murriztuko zenuke 2010eko Udal aurrekontua?



Jesus Hoyos
64 urte, jubilatua

Ez dakit! Elgoibarko enpresarik handiena Udala dela esaten dute, eta bertako langileen soldata gutxitzea izan daiteke aurrezteko modu bat. Bestalde, argiztapenean ere asko gastatzen da. Zenbait lekutan farolak gutxituz gero, diru asko aurreztuko litzateke.



Brigida Iriondo
37 urte, dendaria

Nire ustez, lorezaintzan diru asko gastatzen da Elgoibarren. Bestalde, brigadan jende gehiegi dagoela iruditzen zait, eta baita udaletxeko administrazioan ere. Horrez gain, proiektuak idazten diru asko gastatzen dute, eta askotan ez dute gero ezer egiten.



Ascension Moreno
63 urte, jubilatua

Ez da erraza! Etxean aurrezteko zailtasunak ditugu, eta Udalak ere oso gaizki daude. Jendeari ematen zaizkion laguntzak, adibidez, ez nituzke gutxituko, baina gehiago zaindu behar dira, askotan behar ez duenak jasotzen ditu-eta. Bestalde, soldatak izoztu egingo nituzte.



Maria Jesus Iurrettagoiena
62 urte, etxekoandrea

Zaila da aurreztea. Garai gogorra da, baina pasatuko da. Urte batzuetan udaletxeko langileen soldatak ez nituzke igoko, eta proiektu xumeagoak egingo nituzke. Azken urteetan asko egin da, baina krisia pasatu arte gauza gutxiago egin beharko dira.



★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844

**BETAURREKOAK
BAZTERTZEKO
AUKERA GUZTIAK
ESKANTZEN DITUGU**



Upaiz Zaharra kaleko farolak oso berandu pizten dituzte: “Upaiz Zaharra kaleko farolak gainontzekoak baino beranduago pizten dituzte. Madala guztia argi-argi egoten da, eta gure kalea oso ilun. Ordua aldatu dutenetik eguna asko laburtu da eta goizo iluntzen du. Gure kaleko farolak gainerakoekin batera piztea eskertuko genuke”.



King-Kong inguruko baranda herdoilduta dago: “Herriko leku askotan berriitu dituzte barandak, baina King-Kong ingurunean oraindik baranda zaharra dago. Baranda hondatu eta norbait ibaira erori arte itxaron behar al du-gu? Eskertuko genuke lehenbailehen aldatzea baranda horiek”.



Txalo bat Udaleri bizikletentzako aparkalekuak jartzeagatik: “Elgoibar herri aproposa da bizikletan ibiltzeko, eta azken aldian gero eta jende gehiagok erabiltzen du. Herrian behar zen bizikletak aparkatzeko lekua, eta San Inazio kalean jarri dituztenak oso egokiak dira. Gustatuko litzaidake herriko beste leku batzuetan ere jarriko balituzte horrelakoak. Eskerrik asko”.



Zuen kekek, galderek edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12



II. URTEURRENA

ASIER LANDA PEREZ

*Badira itzaltzen ez diren izarrak,
 hozten ez diren irribarreak.*

*Badira aberasten gaituzten dohainak,
 zure oroitzapena, esaterako.*

Zure familia

Lapurretan egin dute Elgoibarko Aterpe tabernan eta Mendaroko Aizpe elkartean eta gazteen hiru lokaletan

Ateak giltzaz ixteko gomendioa egin du Ertzaintzak, lapurretak ugaritu egin direla eta

Lapurretak izan dira aste honetan Mendaron eta Elgoibarren. Mendaron, domekatik astelehenerako gauean, Patrol bat ostu zuten, eta, itxura guztien arabera, autoaren katua erabili zuten gero Aizpe gastronomia elkartean sartzeko. Izan ere, katua Aizpen bertan laga zuten lapurrek. Elkartera ematen duten bi leihotako burdin-barrak hautsi, eta handik bulegora sartu ziren zuzenean. Bertan, giltzaz itxitako armairua zabaldu eta dirua eraman zuten, baina txanpon txikiak bertan laga zituzten. Era berean, elkartean batutako diru-sobreak ere eraman zituzten. Ertzainek hatz-markak jaso zituzten, baina momentuz ez dute inor atxilotu, iturri ofizialek jakinarazi dutenez. Mendaron lapurtutako Patrola Elgoibarren agertu zen gero.

Gau berean, gazteen hiru lokaletan ere sartu ziren. Zarraila hautsita sartu ziren haletako baten, eta *playstation*-a eta hainbat bideo joko eraman zituzten. Lokaletako beste batean, fatxadan zuloa eginda sartu



Mendaroko Aizpe gastronomia elkartera leihoa hautsita sartu ziren lapurrak.

ziren. Hormako harlauza oso bat ebagita, lokala errentan hartuta duten gazteen arabera. Bideo jokoak eta dirua eraman zituzten handik. “Hogei bat euro, ez zegoen besterik”. Hirugarren lokaletik ere, *playstation*-a eta jokuak eraman zituzten. Ez da lehenengo aldia era horretako lapurretak izaten direna Mendaron. Orain bi aste, hamar bat autotako irratiki ostu zituzten.

Elgoibarren, bestalde, Aterpe tabernan

sartu ziren lapurrak, astelehenetik martitzenerako gauean. Tabernako jabeen arabera, palanka bat erabili zuten lapurrek sukaldeko leihoko burdin-barrak ebagitzeko eta barrura sartzeko. Makina txanponjaleko dirua eta tabernan gordetako diru guztia eraman zuten, eta baita tabakoa ere.

Azken aldian lapurretak ugaritu egin direla ohartarazi du Ertzaintzak, eta etxeko atek giltzaz ixteko gomendioa egin du.

Hilerriko zartaduren erantzulea Udala dela salatu du ezker abertzaleak



Ezker abertzaleak Olasoko kanposantuaren sarrerako arkuan agertu diren zartadurak Udala agintarien sentsibilitate faltaren ondorioa direla salatu du. Ezker abertzaleko kideen esanetan, herriko eraikuntza historiko nabarmenena hondatu dute, eta patrimonioaren kontrako erasotzat jo dute. Arkua dagoen muinoaren inguruak jan egin dituzte enpresak, errepideak eta errotodak egiteko, eta ezker abertzalearen arabera, lurrak mugitzen hasi direnean Olasoko ataria dardarka hasi da. “600 urtean, harri hauek, bata bestearen gainean, ezer gabe –ez zementurik, ez argamasarik– iraun dute. Orain, oster, silikonaz eta zementuz bete beharko dituzte, behera etorri ez dadin”. Bestalde, kanposantu azpiko orubean hainbat tona zementu injektatu behar izan dituztela ere salatu dute.

Lekua **Pilar ikastetxea**



Udalak Pilar ikastetxearen etorkizuneko proiektua idazteko lehiaketa antolatu du. 191.800 euroko aurrekontua dauka proiektuak, BEZ-IVA barne. Beste zerbitzu batzuen artean, 144 eta 180 plaza izango ditu egoitzak, eta 30 lagun ingururentzako eguneko zentrua egingo dute. Horrez gain, zaintzapeko hamar etxebizitza izango ditu eraikin berriak. Pilar ikastetxean zaharrentzako egingo duten egoitza 2014. urterako amaitzea aurreikusten dute.

Zenbakia **1.149**

Olasoko hilerrian 1.149 nitxo daude, horietatik 416 lurrazpiko nitxoak dira. Une honetan 153 nitxo daude hutsik, eta lurrazpiko guztiak beteta daude. Panteoiak, bestalde, 175 dira eta 13 daude libre. Prezioari dagokionean, hamar urterako alokatzek 222,69 euroko kostua dauka eta 99 urterako alokairu luzeagoak, berriz, 1.571,59 eurokoa.

Irudia **Odol emaeleak**

Elgoibarko odol emaleei omenaldia egin zieten urriaren 25ean Elgetan egin zen ekitaldian. 25, 40 eta 50 aldiz odola eman zuten herritarrek odol emaleen insignia jaso zuten. Guztira, 32 lagun omendu zituzten. Odol emaleen elkarteak gazteak animatu nahi ditu odola emateko.



Sorospen ikastaroa antolatu du Gurutze Gorriak

Elgoibarko Gurutze Gorriak antolatuta, lehen sorospen ikastaroa hasiko da azaroaren 13an. 40 orduko ikastaroa izango da. Azaroan eta abenduan emango dituzte klaseak. Besteak beste, egunerokotasunean oso baliagarriak diren hainbat teknika irakatsiko dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 743 864 telefonora deitu daiteke.

1942an jaiotakoek kinto bazkaria

1942an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute datorren azaroaren 21ean, Sigma jatetxean. Ekitaldian parte hartzeko interesa dutenek 45 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0007 22 0071076726. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a izango da.

‘Gure denda, gure poza’ kanpainako zozketa

Gure denda, gure poza kanpainako hirugarren zozketa egin dute, eta 08607 zenbakia izan da saritua (00459 da ordezkoko zenbakia). Irabazleak 100 euroko erosketa txeketa jasoko du, eta kanpainan parte hartzen duten dendetan gastatu ahal izango du. Saria jasotzeko udaletxera jo, edo bestela, 943 741 050 deitu daiteke. Hilabeteko epea jarri dute saria eskuratzeko, eta azaroaren 28a izango da horretarako azken eguna.

Presoekiko elkartasun zozketa

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak presoekiko elkartasuna adierazteko egiten duen zozketako zenbaki sarituak ondorengoak dira: lehen saria, 115066 (ordezkoa 68791); bigarren saria, 90834 (ordezkoa 63438) eta hirugarren saria, 33508 (ordezkoa 15393).

Luze egiten ari zaizu ikasturtea?

6. mailan nago, eta momentuz ondo, baina askotan luze egiten da.

Etorkizunean zer izan nahiko zenuke?

Sendagile, jendeari laguntzeko.

Aberatsa bazina?

Orain ezin ditudanak egingo nituzke. Urrutira joango nintzake, Tenerifera-edo. Eta behartsuenei ere lagunduko nieke.

Zer hiru gauza eramango zenituzke uharte bakarti batera?

Erropa mordo bat, lagun batzuk, eta txalupa bat, etxera itzultzeko.

Esna ala lotan egiten duzu amets gehiago?

Lotan. Amets gozoak izaten ditut.

Gizonak eta emakumeak berdinak dira?

Bai. Biak dira gizakiak, baina, hori bai, gero bakoitzak bere berezitasunik ditu.

Noiz eman zenuen zure aurreneko musua?

Ahhhhh. Ez dakit.

Eta zeini emango zenioke gustura?

Hannah Montanari-edo.

Mendaroko alkate bazina zer egingo zenuke?

Piszinak jarriko nituzke, Elgoibarren moduan.

Athletic ala Realak?

Realak.

Zertarako baliatuko zenuke gauaren iluntasuna?

Lotarako, eta ezkutuan egin beharrekoak egiteko.

Txoria bazina nora egingo zenuke hegana?

Urruti joango nintzateke, mundua ezagutzera.

Gizon izan nahiko zenuke, zertarako?

Ez, emakume izateaz pozik nago. Gizonak arduragabe batzuk dira.



Irteera



Herri Eskolakoak Arraten

Elgoibarko Herri Eskolakoek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen Mendi Lehiaketako Finalistaren Egunean parte hartu zuten urrian. Eibarko Klub Deportivoak antolatu zuen mendi irteera, eta Arratetik Kalamua arteko ibilbidea osatu zuten hurrek. Ondoren, Arraten, diploma bana jaso zuten, eta era berean, hainbat opariaren zozketan ere parte hartu zuten.



NORA ERAMATEN dU HORTZADARRAK?

Naroa Zubia

6 urte

Mendaron agertzen da, eta lainoen gainetik zeruraino iristen da. Eguzkiraino ere bai, baina ilargira inoiz ez.



Unai Perez

6 urte

Ez du inora eramaten. Balkoitik ikusten dut, baina kalera irten eta joan egiten da. Kolo-re asko ditu, baina Mendarotik zazpi ikusten dira.



Kai Zubiaurre

6 urte

Ez dakit, eguzkira edo. Bartzuetan agertzen da, baina gero segituan desagertu egiten da, eta ez dakit gehiago.



Maite Mayo

6 urte

Mendaron Azpilgoeta eta ikastola dagoen lekua lotzen ditu, denok ikusteko. Ikusi eta gero, joan egiten da.



Nerea Cinto

6 urte

Zeruan ezkututzen da, lainoen eta eguzkiaren artean. Bide bat bezalakoa da, baina gezurretakoa.



Luken Agirregabiria

6 urte

Euria eta eguzkia egiten duenean agertzen da, baina Mendaron oso-oso gutxitan agertzen da, eta gero desagertu egiten da.



Irteera



Etxarri-Larraunera irteera

“Urriaren 13, 14 eta 15ean Mendaro Ikastolako 3. ziklokook Arotz-Eneara irteera egin genuen, eta ingurumen arloarekin lotutako ekintzak burutu genituen. Bertan Eibarko Arrateko Ama Birjina ikastetxeko 3. zikloko ikasleekin elkartu ginen, eta oso harreman onak izan genituen. Eguraldi zoragarriaz eta ingurune ederraz gozatzeko aukera izan genuen. Oso ondo pasatu genuen!”.



Ignacio Mugertza eta Jose Agustin Olasolo

Karakate mikologia elkarteko bazkideak

Karakate mikologia elkarteak antolatuta, perretxiko erakusketaren izango da domekan, hilaren 8an, hirugarren urtez. 10:00etatik aurrera, 180 perretxiko mota diferente ikusteko eta ezagutzeko aukera izango dute Kultur Etxeko sotora gerturatzen direnek. Astelehenean ikasleentzako jardunaldiak eskainiko dituzte. Lehiaketaren ordezkaria antolatzearen arrazoa argitu dute Jose Agustin Olasolo *Laukok* eta Ignacio Mugertza *Rusok*.

“Mendian astakeria gehiago ez egiteko hasi ginen erakusketa antolatzen”

Perretxiko lehiaketa alde batera laga eta erakusketa antolatzen hasi zirenetan 2007an. Zergatik hartu zenuten erabakia?

Alde batetik, funtzio didaktikoa dauka erakusketak. Perretxiko guztiak sailkatuta egoten dira, eta ondo ikusten dira bakoitzaren ezaugarriak. Gizon batek esan zidan lehen gehiago ikasten zuela, semearekin mendira joaten zelako perretxiko bila, eta liburuarekin jarduten zutelako sailkatzen, baina erakusketan berdin-berdin ikasi daiteke. Bestalde, mendian egiten ziren astakeriak amaitzea zen gure helburua. Jendeak perretxiko kiloak eta kiloak batzen zituen lehiaketarako eta mendietan espezie batzuk desagertzen zebiltzan.

Lehiaketak arrakasta handia izaten zuen. Erakusketak zer nolako harreman izaten du?

Gure ustez, ona. Jende asko etortzen da, eta gu pozik gaude. Ikasleentzat ere pozik etortzen dira umeak, eta guk gustura erakusten diegu. Lehen denean lehiaketak egiten ziren. 1963an egin zen lehenengoa Tolosan, eta poliki-poliki beste herrietan hasi ziren egiten. Perretxiko gehien sailkatzen zituenari ematen zitzaion saria, baina baita perretxiko gehien jasotzen zituenari ere. Zakuka ekartzen zituen jendeak, eta hori astakeria zen. Aranzadi elkarteok esan ziguten erakusketa antolatzeko. 32 urte iraun zuen Elgoibarko lehiaketak.

Jendeak badauka parte hartzeko aukerarik?

Bai, eta hori argi laga nahi dugu. Guk inori ez diogu debekatu parte-



hartzea, eta nahi duenak badauka perretxikoak batu eta ekartzeko aukera. Zapatuan hasiko gara espezieak sailkatzen, eta ordurako perretxikoek Kultur Etxeko sotoan egon behar dute. Hori bai, ez dago saririk.

Elgoibarren badago perretxikotarako zaletasunik?

Bai, jateko batez ere. Jende askok jateko den ala ez bakarrik hartzen du kontuan, eta perretxikoetan hori baino askoz kontu gehiago dautu. Egia esanda, jatekoak oso gutxi dira. Gauza bat argi laga nahi dugu, izan ere, telebistako saio batean ikusi duguna ez zaigulako gustatu: guk beti erakusten diogu jendeari perretxiko txarrak ere funtzioa badaukala naturan, eta hantxe laga behar dela, baina ETBko saio batean perretxiko txarrak hondatzeko keinua egin zuten. Denok bide berean jardun behar dugu.

Perretxikoetarako zer moduzko urtea da aurtengoa?

Hemen inguruan ez dago asko, eta lagun baten esanetan, Nafarroa aldean ere ez du perretxiko asko topatu. Hala ere, Eibarko erakusketan espezie asko zegoen; hori bai, perretxiko sikuak ziren gehienak. Guri ondo iruditzen zaigu perretxikoak batzeko ipini duten muga, eta Gipuzkoara ere iritsiko dela uste dugu.

Zein da perretxikurik preziatuena?


Onddoak modan daude orain. Jendeak harro esaten du onddoak batu dituela, baina beste perretxiko klase asko dago, eta onak gainera

Urrian...

JAIOTAKOAK



Xuban Varona Aizpiri
Urriak 5
Edu eta Beatriz



Aimar Gurrutxaga Iriondo
Urriak 8
Ibai eta Iratxe



Elene Miguel Isasi
Urriak 5
Oscar eta Miren



Malen Carrascosa
Etxeberria Urriak 5
Santi eta Ane



Oihan Perez Mateos
Urriak 7
Ladislao eta Esther



Garazi Zengotita
Oñederra Urriak 19
Asier eta Nere



Ana Mendazona
Labernia Urriak 1
Alejandro eta Veronica



Xuban Gurrutxaga Iriondo Urriak 25
Ion eta Andrea



Edith Garate Osoro
Urriak 26
Gorka eta Jasone



Erik Urreisti Osoro
Irailak 14
Asier eta Alaitz



Ihart Rojo Osoro
Irailak 9
David eta Aitziber

Wiame Berrabhi
Urriak 9
Mimoune eta Milouda

Unai Rodriguez Garcia
Urriak 12
Juan Carlos eta Ainhoa

Aimar Justo
Arrizabalaga Urriak 12
Luis Maria eta Iratxe

Lander Andres
Fernandez Urriak 21
Eduardo eta Maria Pilar

Gorka Sota Rodriguez
Urriak 27
Igor eta Nora

EZKONDUTAKOAK

- Roberto Gordon eta Usoa Arriola • Urriak 3
- Iker Panizo eta Julia Quintana • Urriak 10
- Igor Gorroño eta Leire Leibar • Urriak 17
- Urtzi Etxabe eta Lorea Zabala • Urriak 24

HILDAKOAK

- Eugenia Juaristi San Martin • 79 urte • Urriak 1
Julio Garcia Fraguas • 68 urte • Urriak 23
Maria Jesus Ezeiza Bengoetxea • 70 urte • Urriak 25
Magdalena Armendia Ajuriagoikoa • 94 urte • Urriak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 740 117 - 943 741 656
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratu jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astehenerako ekarri behar duzu erretratu BARRENEko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.

Euskara Errefortzuak programan 29 umek eman dute izena

Interesatuak Elgoibarko Izarran eman dezakete izena



Elgoibarko Izarrak antolatuta, martxan da Euskara Errefortzuak egitasmoaren aurtengo ikasturtea. Momentuz 29 umek eman dute izena, baina nahi duenak badauka oraindik izena emateko aukera, 943 741 626 telefonora deituta (Idoia). Euskaraz ez dakitenei edo euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten umeei laguntza eskaintzea da egitasmoaren helburua. 5 eta 11 urteko umeei hartzen dute parte, eta eskolaz kanpoko orduetan egiten dituzte saioak. Ordubeteko bi saio egiten dituzte astean. Jolasak, irteera, abestiak edota eskulanak eginez ikasten dute euskara.

‘Desnudos en Central Park’ antzezlanara eskainiko dute azaroaren 20an Herriko Antzokian



Antzerki munduko aurpegi ezagunek *Desnudos en Central Park* antzezlanara taularatuko dute azaroaren 20an Herriko Antzokian. Besteak beste, Manuel Galiana eta Emma Ozores aktoreek jarriko dituzte elgoibartarrak barrezka, izan ere, umorez beteriko antzezlanara baita. www.kutxa.es web gunean edo 943 001 200 telefonoan erosi daitezke sarrerak aurrez, eta bestela, egunean bertan txarteldegian. Emanaldia 22:15ean hasiko da.

Berdintasunari buruzko tailerrak gaur hasiko dira

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, genero berdintasunari buruzko tailerrak hasiko dira gaur arratsaldean. Sei saio izango dira guztira. Hilaren 7an, 13an, 14an, eta abenduaren 11n eta 12an. Baxiakuetako saioak 17:00etan hasiko dira, eta zapatuetakoak 10:00etan.


Emakumeek eguneroko bizimoduaren dituzten zailtasunei buruzko diagnostia egitea da tailerraren helburua. 17 urtetik gorako emakume guztiak hartu dezakete parte. Interesatuak 944 765 166 telefonora deitu dezakete, edo info@murgibe helbidera idatzi dezakete.

Emakumeak lan arloan sartzeko ikastaroak IMHn

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zirkinka programaren laguntzaz, emakumeak lan munduan barneratzeko ikastaroak jarri dituzte martxan IMHn. Urriaren 28an hasi ziren eskolak, eta azaroaren 20ra arte iraungo dute. Gizarte gaitasunak, lanerako aukerak, estetika eta dekorazio gaiak landuko dituzte, besteak beste. Interesatuak oraindik badaukate izena emateko aukera, 943 748 271 (Leire) telefonoan.

Jubilatuen Astea, abeduan



Abenduaren 1ean hasiko da Jubilatuen Astea. Txokolate jana, 80 urtetik gorakoentzako bazkaria, meza nagusia, kina berezia eta gabonetako otarren zozketak izango dira, besteak beste.



BERTSO-IKUSKIZUNA: "Mende baten aldarria"

Ahozko literaturaren altzorra jendearen belarrietara heltzea da ikuskizun honen asmoa. Kantatzeko ez ezik, historia kontatzeko ere balio dute bertsoak. Asmo honekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala (gerrateak, gosetea, emigrazioa, frankismoa ...) deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Xabier Amuriza eta Jon Maiak ekitaldi honetarako.

Azaroak 11, asteazkena 19:00etan Musika Eskolako auditorioan

Juanito Gorostizari omenaldia egin diote, Errosario kalean egindako lanagatik

Kaleko bizilagun ugari batu ziren ekitaldian

Juanito Gorostizari omenaldia egin zioten martitzenean Errosario kaleko jai batzordeko kideek. Errosario Kaleko jaien barruan egin nahi zioten berez omenaldia, baina orduan makal antzean zebilen Juanito, ospitalean, eta ezin izan zioten egin. Martitzenean Jai-Alai taberna atarian bildu ziren Errosario kaleko bizilagunak, Juanito Gorostizari jaiak antolatzen egindako lan mardula eskertzeko. Han, kaleko bizilagun batek idatzi bat irakurri zuen, esker oneko idatzi bat, eta ondoren, oroigarri bat eman zioten. Txalo artean amaitu zen ekitaldia. Omenaldi xumea, baina hunkigarria izan zen.

Ekitaldi bukaeran, Juanitok berak hartu zuen hitza, bizilagunei eskerrak emateko. Aurten jaietan egon ezinaren pena duela esan zuen, eta zorionak eman zizkien Errosario kaleko jai batzordekoek, jaiak prestatzen egindako lanagatik.



sario kaleko jai batzordekoek, jaiak prestatzen egindako lanagatik.

‘Mende baten aldarria’ bertso-ikuskizuna eskainiko dute Xabier Amurizak eta Jon Maiak

Gotzon Garate idazle eta euskaltzalearen omenezko hitzaldi zikloaren barruan, *Mende baten aldarria* izenburuko bertso ikuskizuna eskainiko dute Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariak, datorren eguaztenean, hilaren 14an. Ahozko literaturaren altzorra jendearen belarrietara heltzea da ikuskizun horren asmoa. Asmo horrekin, XX. mendeko giro politiko eta soziala deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte. Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditorioan izango da bertso ikuskizuna, 19:00etan.

Eguaztenean, berriz, Jon Sarasua irakasle aretxabaltarrak euskaltasunaren norabideaz jardun zuen. Euskaltasunean aurrera egiteko elementuak aletu zituen. Jende ugari batu zen hitzaldira, eta Kultur Etxeko gela txiki gelditu zen, aurreko astean bezalaxe.



Jon Sarasua.



Jon Maia eta Xabier Amuriza

Jende ugari batu da zaporeen azokan

Zaporeen eta artiasu lanen azokari esker, kolore berezia izan zuen joan zen asteburua. Egue-netik domekara bitartean, jana-rien, eskulanean eta garbiketa produktuen hogeita postu bisitatzeko aukera izan zen Leku Eder parkean. Elgoibartar asko hurbildu zen bertara.



‘Cyrano’ txotxongilo ikuskizuna eskainiko du domekan Gorakadak

Gorakada konpainiak *Cyrano* txotxongilo ikuskizuna eskainiko du domekan Herriko Antzokian. Claudio Hochmanena da jatorrizko bertsoa, eta Oihane Enbeitak euskaratu du. *Cyrano* maitasun istorio bat da. Ezinezko maitasunaren istorioa, gorputzaren eta arimaren huts-betez mintzo den istorio poetikoa. 7 urtetik gorako umeentzako ikuskizuna da berez, baina helduen bihotzak ere hunkituko ditu. Sarrerak egunean bertan salduko dira leihatilan. Hala ere, azaroaren 9a baino lehen Kultura Sailera deituta ere eskuratu daitezke (943 742 158).



CARMEN PEREA

Korrikalaria

Carmen Perea 34 urte ditu, eta azken urteotan Donostian bizi da. 12 urterekin hasi zen antxitxika egiten Ego-Toki taldean. Orditik, atletismoari lotuta bizi da. Donostiako 15 kilometroko lasterketa irabazi berri du, eta domekan Behobia-Donostia proban hartuko du parte. Iazko marka hobetzea da bere helburua.

“Atletismoan konstantzia oso garrantzitsua da”

Donostiako 15 kilometroko proba irabazi berri duzu. Nolako urtea izaten ari da?

Ona. Oso gustura nabil, eta ahal dudan denbora guztia eskaintzen diot atletismoari. Txandaka egiten dut lan, eta horrek entrenatzeko aukera handia ematen dit. Astean, bost egunetan entrenatzen dugu. Nire kontura egiten dut saltaka, talderik gabe. Entrenatzaile bat daukagu eta mailaren arabera taldeak egiten ditu, baina ez daukat obligaziorik: nahi dudana egin dezaket. Atletismoan konstantzia oso garrantzitsua da. Azkenengo momentuan ordu pila bat sartzeak ez du balio. Behobia-Donostia prestatzeko, adibidez, irailean hasi nintzen entrenatzen. Bestalde, janaria ere zaindu behar izaten dugu, eta lesiorik ez edukitzea oso garrantzitsua da. Nik alde horretatik suertea izan dut, eta osasunez ondo nago.

Behobia-Donostia izango da domekan. Zein helbururekin hartuko duzu parte?

Iazko marka hobetzea da nire nahia, eta ahal bada 1:20 denboraren azpitik egitea gustatuko litzaidake. Eguraldia klabea izango da. Ni hobeto moldatzen naiz eguraldi onarekin. Euria edo haizea egiten badu, zaila izango da helburua lortzea. Bigarren urtez hartuko dut parte aurtan. Iaz oso gogorra egin zitzaidan, baina aurtan ezagutzen dut ibilbidea, eta hobeto ibiltzea espero dut.

Zein motatako lasterketak gustatzen zaizkizu gehien?

Asfaltoan moldatzen naiz ondo, eta, batez ere, distantzia laburreko lasterketak gustatzen zaizkit. 8 eta 21 kilometro artekoak egiten ditut. Donostiako maratoi erdian denbora ona egitea nahiko nuke. New York-eko maratoian parte hartzea gustatuko litzaidake, baina helburu konkreturik jarri gabe. 42 kilometro asko dira, eta momentuz ez dut horrelakorik planteatu ere egin.

Nola gogoratzen dituzu zure hasierako urteak?

Urrun ikusten ditut! Pista Beltzean entrenatzen ginen, eta Mintxetan pare bat urtean ibili nintzen. Pilar Ikastetxean nenbilen, eta San Pedron egin genuen lasterketa bat irabazi nuen. Ego-Tokin sartzeko gomendioa egin zidaten, eta gaur arte.

Zer kendu eta zer eman dizu atletismoak?

Korrika egitea beharra da niretzat. Lasaitzeko eta arazoak ahazteko behar dut. Gaizki banago, saltaka egin ondoren, dena hobeto ikusten dut. Parrandak-eta oso gutxi egiten ditut, baina ez dut faltan botatzen.

Noiz arte jarraituko duzu korrika egiten?

Ahal dudanera arte! Nire zaletasuna da. Pare bat urtez laga egin nuen nekata nengoelako, baina orain ezin izango nuke laga, biziatuta nago. Seme-alabaren bat edukitzean badut, adibidez, denboraldi batean laga egin beharko dut, baina gero ere jarraitzeko asmoa daukat, beste maila batean izan arren. Nire bikotekidea ere korrikalaria da, eta horrek asko errazten du dena.



Txirrindularitzari buruzko jardunaldiak hasiko dira Mendaron

Eskarmentu eta itzal handiko jendea gonbidatu dute

Txirrindularitzaren gaineko jardunaldiak egingo dira Mendaron gaur zortzi eta azaroaren 20an. Oreki Fundazioak antolatu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailarekin, Mendaroko Udalarekin eta Tolosako Asuncion Kirol Medikuntza Zentroarekin elkarlanean. Txirrindularitza alorreko izen handiko adituak gonbidatu dituzte, eta tartean baita txirrindulari ohi bat ere, Jon Odriozola Euskaltel-Euskadi taldeko zuzendari izandakoa.

Datorren barixakuan, hiru hitzaldi izango dira. Cristian Tianok hasiko ditu jardunaldiak *Bat-bateko heriotza kirolean* izenburuko hitzaldiarekin. Ondoren, Iñaki Arrati-belek prestakuntza fisiologikoaz eta ondo

elikatzearen garrantziaz jardungo du. Imanol Garciak itxiko du eguna, *biomekanika eta errendimendua* izenburuko hitzaldiarekin.

Azaroren 20an beste hiru hitzaldi eta eztabaida saio bat izango dira. Txirrindularitzaren alderdi etikoez eta txirrindularitzarekiko konpromisoez arituko dira, besteak beste. Eztabaidan, Beñat Urain txirrindulari mendaroarrak parte hartuko du, gonbidatu gisa.

Hitzaldi guztiak arratsalde izango dira, 18:30etik aurrera, eta interesatuek aurrez eman beharko dute izena. Bi telefono jarri dituzte izena eman edota informazio gehiago jaso nahi duenarentzat: 943 365 891 (Josune Izagirre, Oreki Fundazioa), eta 943 033 281 (Mendaroko Udala)

Lagranetik Biasterira arteko mendi-irteera Morkaikorekin

Hilaren 21erako mendi irteera antolatu du Morkaikok. Lagranetik irten eta Biasterira arteko bidea osatuko dute, eta han, Cruz del Castillo (1436 m) mendira igoko dira. Ondoren, David Moreno bodegan bazkalduko dute mendigoizaleek. Elgoibartik 7:00etan irtengo dira, Plaza Handitik eta 22:00ak aldera itzuliko dira. Interesatuek lehenbailehen eman beharko dute izena, autobus bakarra irtengo delako. Bazkideek 40 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 45 euro.

95 elgoibartar eta bederatz mendaroar Behobiara



Milaka korrikalarik hartuko dute parte domekan jokatu den Behobia-Donostia lasterketan, eta ez da Elgoibarko eta Mendaroko ordezkariarik faltako. Antolatzaileen esanetan, 95 elgoibartarrek eta bederatz mendaroarrek eman dute izena. Iaz 100 elgoibartarrek eta 11 mendaroarrek amaitu zuten inoiz egin den Behobiarik jendetsuena. 13.950 lagunek amaitu zuten lasterketa orduan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **0** – Lagun Onak1 (**3. maila**)
 Elgoibar **7** – Soraluze **0** (**erreg.**)
 Aloña Mendi **2** – Elgoibar **5** (**Jub.**)
 Elgoibar **2** – Aloña Mendi **1** (**Kad. A**)
 Urola **4** – Elgoibar **2** (**Kad. B**)
 Bergara **5** – Elgoibar **1** (**Inf.**)
 Elgoibar **0** – Elbar **8** (**Txiki**)
 Elgoibar **0** – Mondragon **5** (**Neskak**)
 Elgoibar **4** – Arrasate **3** (**Aleb.**)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle **18** – Aloña Mendi **18** (**Sen.nesk.**)
 Beristain Elg. **30** – Usurbil **35** (**Jub.mut.**)
 Pneumax Elg. **36** – Tolosa **44** (**Kad.mut.**)
 Aterpe Elg. **19** – Pulpo B **10** (**Inf.nesk.**)
 Consulting **14** – Lauko **18** (**Kad.nesk.**)
 Bankoa Elg. **22** – Arrate B **21** (**Inf. mut.**)
 Astigarraga Elg. **6** – Ikus Elg. **28** (**Inf.nesk.**)
 Arrate A **40** – Txarriduna Elg. **8** (**Inf.mut.**)

ARETO FUTBOLA

Euskalduna **2** – Concepto Createch **5**

SASKIBALOIA

Soraluce **16** – Anbolo **32**

PILOTA

Usurbil **12** – Lagunak **22** (**1. maila nag.**)
 Oiarpe **14** – Lagunak **22** (**2. maila nag.**)
 Murumendi **12** – Lagunak **22** (**3. maila nag.**)
 Lagunak **4** – Usurbil **22** (**2. maila jub.**)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7

11:00 Elgoibar – Elbar (**Inf.**)
 12:30 Elgoibar – Orioko (**Jub.**)
 16:30 Haundi – Portugalete (**3. maila**)
 18:30 Elgoibar – Elbartarrak (**Kad. A**)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 7

16:00 Lauko Elg. – Zarautz (**Kad. nesk.**)
 17:30 Alkorta Elg. – Donibane (**Sen.mut**)

SASKIBALOIA

Zapatua, 7 (Kiroldegian)

13:00 Anbolo – Eskoriatza

Domeka, 8

11:30 Txarriduna Elg. – Arrate C (**Inf. mut**)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Domeka, 8

12:00 Lagunak – Intza (**3. maila nag.**)

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **680 516 240**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ **618 377 283**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko prest eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Goizez. ☎ **660 511 781**
- Emakumea, edozein lan egiteko prest. Edozein ordutan. ☎ **626 018 538**
- Emakumea, interna edo externa lan egiteko prest. Erizaina. ☎ **649 008 036**
- Emakumea orduka edo egun osoan lan egiteko prest. Haurrak edo nagusiak zaintzen eta garbiketa lanak egiten. ☎ **680 250 527**
- Neska arduratsu eta gaztea lan egiteko prest, interna edo externa pertsona nagusik zaintzen edo garbiketa lanetan. ☎ **666 008 974**
- Kamareroa behar da Mendaroko taberna-kafetegi batean. ☎ **943 030 150**
- Gizonezkoa lan bila, garbiketan edo banaketa lanetan. Gida baimena eta auto propioa. ☎ **605 800 582**

- Emakumea, lan egiteko prest 15:00etik aurrera. ☎ **691 532 893**
- Emakume euskalduna eskaintzen da pertsona nagusiak, gaixoak eta ezinduek zaintzeko. Eskarmentua du. Josefina. ☎ **615 762 742**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ **626 329 979**
- DBHko Gaztelania eta Matematikako klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎ **943 744 206**

ESKANTZA

- Emakume interna behar da 2 pertsona nagusi zaintzeko. Gida beimenarekin, eskarmentuarekin eta ahal bada euskalduna. ☎ **649 167 208**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA

- Elgoibarko erdigunean etxea konpartitzeko logela alokatzen dut. ☎ **678 803 535**
- Autoa edo furgoneta sartzeko marradun garajea alokatzen da Santa Ana kalean (berria). ☎ **646 966 198**

- Komuna duen lokal txiki bat behar da. ☎ **943 740 187**
- Pisu bat osatzeko gazte bat behar da, Elgoibarren. Gela bat alokatzen da. ☎ **610 458 552**

MOTORRAK ETA GARAJEAK

- Pista beltzean marradun garajea alokatzen dut. ☎ **653 863 482**

BESTELAKOAK

- Herrerako altzaria salgai, ispluarekin. ☎ **605 736 346**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

| Lana / Bestelakoak | Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra |
|--------------------------|---------------------------------|
| <i>Astebete : 5 euro</i> | <i>Astebete : 10 euro</i> |
| <i>2 aste : 8 euro</i> | <i>2 aste : 17 euro</i> |
| <i>3 aste : 10 euro</i> | <i>3 aste : 25 euro</i> |

BARRENeko erretratuak salgai!

BARREN astekarian edo www.elgoiBARREN.net atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.com



• Konturatu gabe gure etxeko prexioxak astelehenean urtebete! Zorionak, **Ekain!** Muxu potolo bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Ane**, igandean 5 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxekoan eta bereziki, Aritzen, Maialenen eta Nereren partez.



• Zorionak, **Ane**, asteartean 10 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Mariaren partez.



• Zorionak, **Danel**, gaur urtetxo bat egin duzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Monica!** Jose eta Karmenen partez.



• Nork esan behar zuen neska txiki honek Elgoibarko ipurdirik politena edukiko zuela? Zorionak!



• Zorionak, **printzesa**, zure 2. urtebetetzear. Bi muxu potolo familiakoan eta bereziki, Naroaren partez.



• Zorionak, **Elena**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Hainbeste itxaron eta gero azkenean iritsi da espero genuen eguna. Zorionak, **bikote** eta ondo pasa! Muxu handi bat koadrilakoan partez.



• Zorionak, **bikotel** Egun ona pasa eta kontuz txanpainarekin! Maite zaituztete guztien partez.



• Zorionak, **Nahia**, zure lehenengo urtebetetzear. Familiakoan partez, mila muxu!

Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguzten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Ikastolako 8. mailako bazkaria izaten zuten, aurten ere, 1964an jaiotakoek. Iaz baino jende gutxiago azaldu bazen ere, badakigu egon zirenek primeran pasa zutela. Sigma jattetxean bazkaldu ondoren, eta txikitako kontuak lagun zituztela, goizeko ordu txikiak arte eutsi zioten batzuek. Datorren urterako zita ere lotuta laga zuten: urriaren 23an elkartuko dira, bazkaldu eta aspaldiko gelakideekin eguna pasatzeko.

OSPAKIZUNAK URREZKO EZTEIAK



Zorionak, **Patxi eta Dolores**, azaroaren 7an zuren urrezko ezteiak izan direlako. Seme-alaba Joxe Mari, Miren Amaia, Jokin eta biloba Hasierren partez.

*Gurasotasun hori beti ongi betez,
denbora joan leike beti elkar maitez.
Gure desira da, esateko hitz batez
bizi egon zaitetzten hola anitz urtez.*

OKINDEGIA

8 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 6 Etxeberria (Errosario)
- 7 Ibañez (Goizez, Yudego)
- 8 Ibañez
- 9 Garitaonandia
- 10 Etxeberria (Santa Ana)
- 11 Fernandez
- 12 Yudego
- 13 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net
atarian



6 barixakua

Bertsolaritza

21:00 Bertso-afaria

Andoni Egaña eta Iker Zubeldia bertsolariekin, Mendaroko gaztetxean.

8 domeka

Erakusketa

10:00 Perretxiko erakusketa

Karakate mikologia elkarteak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Eguerdiko 14:00ak arte egongo da ikusgai, eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

Gaztañerre

12:30 Gaztañerre jaia

Altzolako Zubibai elkarteak antolatuta, Zelaia parkean.

11 eguaztena

Ikus-entzunezkoa

19:00 'Mende baten aldarria'

Jon Maiak eta Xabier Amurizak bertso ikuskizuna eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan.

13 barixakua

Hitzaldia

18:00 Kirol jardunaldiak

Kirolari buruzko hainbat gai landuko dituzte. Hizlariak: J.M. Gonzalez Aramendi, Cristian Tiano, Iñaki Arratibel eta Imanol Garcia. Mendaroko udaletxean.

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 6

Marrakzi txokoa 17:00

ASTELEHENA 9

Filma 17:30

MARTITZENA 10

Antzerki txokoa 16:30

EGUAZTENA 11

Eskulanak: kareta 17:30

EGUENA 12

Kanpo jolasak 17:30

LUDETEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 6

Karta jolasak 17:00

ZAPATUA 7

Zinema 17:00

DOMEKA 8

Txapa tailerra 17:00

MARTITZENA 10

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 11

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 12

Sukalde txokoa 17:00

«Malditos bastardos»

- 6, barixakua: 22:15
- 7, zapatua: 19:00/22:15
- 8, domeka: 19:00
- 9, astelehena: 21:30

Estatu Batuak-Alemania, 2009. Zuz.: Quentin Tarantino. Akt.: Brad Pitt, Diane Kruger, Christoph Waltz, Eli Roth, Melanie Laurent. 165 min. II. Mundu Gerra. Naziak Frantzia okupatu dute, eta

Shosanna Dreyfusen familia nola hil dioten ikusi du. Ihes egingo du Parisera. Europako beste herri batean, Aldo Raine tenienteak Frantzian naziak hiltzen ibiltzeko taldea osatuko du juduekin.



Gure gomendioa

Perretxiko erakusketa

Azaroak 8, domeka, Kultur Etxean

Karakate mikologia elkarteak antolatuta, perretxiko erakusketa izango da domekan, Kultur Etxeko sotoan. 2007an ekin zioten erakusketa antolatzeari. 180 perretxiko espezie inguru izango dira ikusgai, eta horiei buruzko azalpenak emango dituzte antolatzailleek. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke.



Zerikasi

IKASTAROAK

Taldea egiten ikasteko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Noiz: Azaroaren 13an
Non: Soroluzen
Izena emateko: Kontsultatu (943 751 304)

Kaligrafia arabiarra, henna eta te zeremonia

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Noiz: Azaroaren 20an
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu (943 708 437)

Reiki ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-28
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu (665 743 217, Martin)

Sukaldaritza hasiberrientzat

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Gazteleraz eta euskaraz
Hasiera data: 2010-05-05
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Lehen sorospen ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: 2009-11-13
Non: Elgoibarren
Izena emateko: Kontsultatu (943 743 864)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Pequeños invasores»

8, domeka: 16:30

«Frozen river» (Ongarri zine-kluba)

12, eguena: 21:30

Estatu Batuak, 2008. Zuz.: Courtney Hunt.
Akt.: Melissa Leo, Misty Upham, Charlie
McDermott. 97 min. Ray Eddy bere ame-
tsetako etxea erostekotan dabil, baina se-
narrak diruarekin ihes egingo du, eta ume-

ekin bakarrik eta dirurik gabe geldituko da.
Lila Littlewolfek modu bat proposatuko dio
dirua erraz irabazteko: legez kanpoko etor-
kinak Kanadatik Estatu Batuetara erama-
tea, Sain Lawrence ibai izoztuan zehar.

Gure berbak

Hiztegixa: animalixen izenak (6)

Hona, gaurkuan ere, animalixen berba gehi-xago:

- ♦ **TRIBULI, tribulixa:** Txori txiki mota bat.
- ♦ **TRIKU, trikua:** Kirikinoa, sagarroia. **Kiriki-xo** ere erabiltzen da, lehen gehiago.
- ♦ **TXANTXAGORRI, txantxagorrixa:** "Petti-rrajo".
- ♦ **TXEPETX, txepetxa:** "Chochín".
- ♦ **TXINBO, txinbua:** "Chimbo".
- ♦ **TXINDURRI, txindurrixa:** Inurria.
- ♦ **TXIO, txiua:** 1. Txori txiki mota bat, "Mosquitoero". 2. iz. Txorien kantua. **Txioka.**
- ♦ **TXIO-TXIO:** haur. Txoria.
- ♦ **TXIPIROI, txipiroia:** "Chipirón".
- ♦ **TXIRRISKILLA, txirriskilla:** "Verdecillo".
- ♦ **TXITTA, txittia:** Txita. "Pollito". **Txita** alda-eran ere bai.
- ♦ **TXITXARA, txitxaria:** "Lombriz".
- ♦ **TXITXI, txitxixa:** Txori txiki mota bat.
- ♦ **TXUERRE, txuerria:** "Gorrión".
- ♦ **UBARROI, ubarroia:** "Cormorán". *Altzo-lan sarri ikusten dituk ubarroiak, aingirak harrapatzen.*
- ♦ **UROILLO, uroillua:** "Gallineta", uretako oiloa, ibai eta erreka bazterretan ibiltzen den hegazti txiki izutia. **Uroillo haundixa** eta **Uroillo txikixa.**
- ♦ **URRUSA, urrusia:** Animalia emea. *Txahal urrusia jaixo jaku.*
- ♦ **UR-ZOZO, ur-zozua:** Uretan ibiltzen den zozo klasea.
- ♦ **ZAPABURU, zapaburua:** "Renacuajo".
- ♦ **ZAPELAITZ, zapelaitza:** "Ratoneo", "busardo", hegazti harrapari handia. **Arranbeltza** ere erabiltzen da.
- ♦ **ZEREN, zarena:** "Carcoma". **Zerenak jandako egurra. Zerenak jota egon.**
- ♦ **ZERZETA, zerzetia:** "Cerceta".
- ♦ **ZIRAUN, zirauna:** Sugearen antzekoa, pozoirik ez duena. "Lución".
- ♦ **ZOZO, zozua:** "Mirlo". Zozoa. **Zozuak be-liari, ipurbetz** (berdintsu, beste hau ere: **Ka-zuak zartaifiari, ipurbeltz**).

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1940

Aste honetako erretratu zaharra Juan Mari Mugertzak laga digu. 1940. urtekoa da, eta Arraten aterata dago, jaietan. Argazkian Juan Mugertza korrikalari ezagunaren senideak agertzen dira, ilobak eta koinatua, hain zuzen ere. Juan Mugertzak izen handia hartu zuen atletismoaren munduan, eta urtero haren omenez nazioarteko krossa egiten da Elgoibarren. Hasierako urteetan sanbartolomeetan egiten zen, eta gaur egun San Anton jaien bueltan egiten da. Gogoratu ditzagun argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Roke Gabilondo Mugertza (†), Juan Mari Mugertza eta Teodoro Arriola (†) (Cristina Mugertzaren senarra).



GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

943 743 704

edo helbide honetara idatzi:

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

>>Kalitate Turistikoaren Q-a

“Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du”

Zarauzko turismo bulegoko Esther Facchinekin izan gara. Euskadin honezkeroko 267 establezimenduk jaso dute turismo arloko enpresen zerbitzua, instalakuntzak eta gestioa zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

- Zergatik egin duzue turismoaren sektorearekin lotutako sistema eta kalitate-programetako batzuen aldeko apustua?

Turismo Bulegoko zerbitzua hobetzeko aukera paregabekoa zela iruditu zitzaigun.

- Zertifikatutako Kalitate Turistikoaren Q-a bezalako kalitate sistemak nolako abantailak ekarri dizkio zure erakundeari?

Zerbitzu profesionala eta kalitatea eskaintzen duen entitate ezagutua izatea.

- Ezarpenaren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?

Ezarpenak gure funtzionamendua analizatzeko eta hobetzeko datu gehiago eman dizkigu. Orain sistemtikoki egiten dugu lana, ezarri ditugun prozedurei esker.

- Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?

Eskuorriak eskaerara egokitu ditugu, seinalestapena hobetu dugu eta sektoreko enpresekin dugun harremana hobetu dugu.

- Zer esango zenieke turismo arloko profesionaleri Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezkeen?

Sistema bati jarraituz lan egiteak enpresaren gestioa hobetzen du. Bestalde, kalitate sistemari esker pertsonalaren inplikazioa suspertzen da eta bezeroak asebetetzea lortzen da. Lana da, baina merezi du!

- Beste enpresari batzuei kalitate sistema zertifikatuarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?

Noskil Berez, sektoreko enpresak bultzatzen ari gara Jardunbide Egokien Eskuliburua lantzerako Kalitate Turistikoaren Q-a landu aurretik. Momentu honetan Zarauzko 33 enpresa ari dira.



CALIDAD TURISTICA



Jarri kalitate turistikoaren Q-a zure establezimenduan

94 607 75 86

94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

• **Jardunbide egokirako programak:** helburua enpresariaren “profesionalizazioa” eta jomuga-konfiantza sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 274 establezimendu daude.

- Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure erakundearen kokatze lehiakorragoa ahalbidetzen du?

Zalantzarik gabe! Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria ezaugarri ezaguna da eta enpresaren bereiztasuna nabarmentzen du. Gainera, Eusko Jaurlaritzan egiten ari den kanpainari esker gero eta ezagunagoa izango da.

- Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?

Prozedurak idazteko lana funtsezkoa izan da. Barruko lana suspertzeko sortutako dinamika eta gure bezeroen asebetetzea neurtzeko garrantzi handia izan dute gure zerbitzua hobetzeko. Beste arlo batean ere aurrerapen handia nabaritu dugu, hau da, biltegiaren kudeaketan.

- Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzu edo sartzeko asmoa duzu?

Aldaketak baino, pertsonalaren formakuntza jarraitzea eta iradokizunak kontuan hartzea ezinbestekoak dira Turismo Bulegoko kudeaketa hobetzeko eta bide honetatik jarraitzeko asmoa dugu. Bestalde, bulegoko hainbat arlotan 5S sistema ezartzen ari gara.

• **Kalitate Turistikoaren Q-a programa:** bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 267 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

• **EFQM Bikaintasun eredu:** erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 17 establezimendu daude Euskadin.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloa
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgolbar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.net



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

